



COVID-19ak sortutako osasun krisi egoeraren ostean Valle de Trápaga-Trapagaran udalerrian establezimenduak mantentzea sustatzeko zohiko laguntzak

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaritzen duenak, zenbait txikizkako lokal eta establezimendu publikoarentzat irekitzea etetea xedatu du eta, hori ez ezik, agintaritzaren eskudunak establezimenduen jardura eteteko aukera aurreikusten du, hain zuzen ere garatzen ari diren baldintzengatik kutsatzeko arriskua dagoenean. Aurreikuspen horren ondorioz euren konturako langile eta enpresa askok bertan behera utzi behar izan dute euren jardura jendearentzat irekita ez dagoen lokal edo establezimenduan. Beste kasu batzuetan, konfinamendu-neurrien ondorioz, establezimenduak irekita egon daitezkeen arren, jardura-maila ohikoa baino askoz txikiagoa izan da.

Agerikoa da udalerriko negozioak ixteak eta konfinamendu-neurriek pertsona eta enpresa txiki askok euren jarduerari eusteko eta mantentzeko zailtasunak izatea eragingo duela etenaldia edota konfinamendu-aldia amaitzen denean; izan ere, etenaldi horretan ezin izan dute diru-sarrerarik lortu zenbait kasutan, eta beste kasu batzuetan, lokala irekita egon arren, diru-sarrerak oso urriak izan daitezke.

Valle de Trápaga-Trapagarango udalaren Ekonomia Sustatzeko Arloaren asmoa da neurri ekonomikoak bultzatzea Valle de Trápaga-Trapagarango udalerrian dauden establezimenduei ateak irekita eta jardunean mantentzen laguntzeko eta, horrela, COVID-19ak eragindako osasun-krisia gertatu eta zabaldu aurretik zegoen enpresa-ehunari eta, ahal den neurrian, haren jarduerarekin sortutako enpleguari eusteko.

1. artikulua— Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da Valle de Trápaga-Trapagaranen jardura burutu eta establezimendua zabalik duten pertsona fisikoei (autonomoak eta/edo profesionalak, ondasun-erkidegoetako bazkideak eta nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilak) eta pertsona juridikoei (txikizkako saltoki, ostalaritza establezimendu eta bestelako zerbitzu profesionalen titularrak) eman beharreko laguntzak arautzea. Pertsona horien jarduerak COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaritzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren eraginpean egon behar dute eta laguntza horien xedea jardura eta enplegua mantentzen laguntzea da eta, aldi berean, Valle de Trápaga-Trapagarango udal mugartean jardura ekonomikoa bultzatzea.

2. artikulua — Aurrekontu kreditua

Dirulaguntza horiei aurre egiteko, guztira, 220.000 euro bideratuko dira indarrean dagoen udal-aurrekontutik; laguntzak aurrekontuko 430-480.03 partidaren kargura emango dira.

3. artikulua.— Onuradunak

1. Deialdi honetan ezarri diren laguntzen onuradun izango dira pertsona fisikoak (autonomoak eta/edo profesionalak eta nortasun juridikorik gabeko ondasun-erkidegoetako eta sozietate zibiletako bazkideak) edo pertsona juridikoak, baldin eta legez eratuta badaude eta dirulaguntza ematea eragiten duten jardura ekonomikoak (enpresakoak edo profesionalak) egiten badituzte, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:



a) Jabetzan izatea Valle de Trápaga-Trapagaranen jendearentzako irekita dagoen txikikako denda bat, ostalaritzako establezimendu bat (autonomoa edo mikroenpresa, hau da, hamar langile edo gutxiagokoa, dena delarik bere era juridikoa) edo zerbitzu profesionalen bulego bat.

b) Egiten duten jarduera hori COVID-19ak eragindako egoeraren kudeaketari ekiteko alarma-egoera deklaritzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak edo agintaritza eskudunak emandako aginduek ezarritako txikizkako lokal eta establezimenduen publikoarentzako irekiera etete horregatik kaltetua izatea edo, hala ez bada ere, garatzen duten jarduera horri dagokionez fakturazioa 2020ko apirilean gutxienez %75 murriztea, 2019ko ekitaldian egindako hileko batez bestekoarekin alderatuta. Pertsona fisikoak edo juridikoak alta egoeran daraman denbora ez denean dirusarreraren murrizketa egiaztatzeko eskatzen den 2019ko urtarrilaren 1era heltzen, jarduera-aldia kontuan hartuta egingo da balorazioa.

Horrenbestez, fakturazioa gutxienez %75eko murriztu izana justifikatu beharko da honako jarduera hauetan: elikagaien txikizkako merkataritza establezimenduak, edariak, beharbeharrezkoak diren produktu eta ondasunak, farmazia- eta osasun establezimenduak, albaitaritza-zentro edo -klinikak, optikak eta produktu ortopedikoak, higiene-produktuak, prentsa eta papergintza, automoziorako erregaiak, estankoak, teknologia- eta telekomunikazio-ekipoak, etxeko animalientzako elikagaiak, internet bidezko merkataritza, telefono bidezko merkataritza edo korrespondentzia, tindategiak, ikuztegiak eta etxez etxeko ile-apainketako jarduera profesionala.

Ez dute fakturazio-murrizketa justifikatu beharko aurreko paragrafoan aipatu ez direnek, ez eta agintaritza eskudunak kutsatzeko arriskua saihesteko lokaletan jarduera etetea agindu dutenek ere.

c) Alta egoeran egotea dagokion Gizarte Segurantzako erregimenean edo bidezko mutualitate profesionalen, bai eta Ogasunean ere, eskabidea aurkezteko unean, bai eta Alarma-Egoeraren adierazpena egin aurretik ere (martxoak 24), Valle de Trápaga-Trapagaranen establezimendua duen eta dirulaguntzaren eskaeraren xedea den jarduera ekonomikoa garatzeko.

d) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

e) Valle de Trápaga-Trapagarango udalarekin zorrik ez izatea (inguruabar hori ofizioz berrikusiko da)

f) Valle de Trápaga-Trapagarango udalak aurretik emandako dirulaguntza guztiak justifikatu izana, betiere dagokion justifikazio-epea amaitu bada.

g) Dirulaguntzen arloko itzulketak betebeharrak egunean izatea.

hi) Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penal edo administratiborik ez izatea, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, eta horien barruan sartzen dira emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuagatiko diskriminazioan erortzeagatik gertatutakoak.

i) Ez egotea dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 2. zenbakian dirulaguntzen onuradun izateko aurreikusitako gainerako



egoeretan.

2. Kanpoan geratzen dira elkarteak, fundazioak eta, oro har, irabazi-asmorik gabeko erakundeak, langile autonomo laguntzaileak, bai eta ondaresozietateak, finantza-erakundeak, aseguru-etxeak eta sektore publikoko erakundeak ere.

4. artikulua — Laguntzen zenbatekoa

1. Onuradun bakoitzari laguntza gisa emango zaion gehienezko kopurua hauxe izango da:

- 1.000 € bere jarduna eten duten establezimenduentzat.
- 800 €, fakturazioa gutxienez %75 murriztu zaieneztat.

Ematen zaien laguntza inoiz ere ez da izango eskatutako kopurua baino handiagoa.

2. Ondasun-erkidegoak edo sozietate zibilak osatzen dituzten bazkideen kasuan, ezarritako gehieneko zenbatekoa ondasun-erkidegoko edo sozietate zibileko bazkide guztientzat izango da, eskaera bereizita egiten badute ere. Bazkide bakoitzari esleitutako diru-laguntzaren zenbatekoa ondasun-erkidegoan edo sozietate zibilean duen partaidetza-ehunekoaren arabera kalkulatu da.

5. artikulua — Eskabideak: aurkezteko modua, agiria eta epea

1. *Aurkezteko modua:*

- Eskabideak posta elektronikoz aurkeztuko dira helbide honetan:
ayuntamiento.trapagaran@bizkaia.org
- Posta arruntez bidalita Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Erregistro Orokorrera, beti ere postaz bidali den eguneko zigilatuarekin.

Valle de Trápaga-Trapagarango Udalaren Erregistro Orokorraren helbidea:

Plaza Lauaxeta, z.g.

48510 Valle de Trápaga-Trapagaran (Bizkaia)

Nortasun juridikorik gabeko ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek eskaera bat egin beharko dute, norberaren izenean, erkidego edo sozietate hori osatzen duten bazkide bakoitzeko eta, nolnahi ere, alde aurretik eskaera aurkeztu duten bazkideei esleitutako erregistro-zenbakia adierazi beharko dute.

2. *Aurkeztu beharreko agiriak:*

2.1. *Eskabidea*

I eranskina: *Eskabide eredu*a erabiliko da

2.2. *Erantzukizunpeko adierazpena*

II eranskina: 2.2. *Erantzukizunpeko adierazpenaren eredu*a erabiliko da, honakoak jasoz:

- Pertsona fisikoek edo mikroenpresek burutzen dutela jarduera ekonomikoa.
- Gutxienez bere jarduera ekonomiko burutzeko establezimendu bat edukitzea



jendearentzako zabalik Valle de Trápaga-Trapagaranen eta establezimendu hori ez izatea etxebizitza baten atal bat.

- Egiten duten jarduera hori COVID-19ak eragindako egoeraren kudeaketari ekiteko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak edo agintaritzaren eskudunak emandako aginduek ezarritako txikizkako lokal eta establezimenduen publikoarentzako irekiera etete horregatik kaltetua izatea edo, hala ez bada ere, garatzen duten jarduera horri dagokionez fakturazioa 2020ko apirilean gutxienez %75 murriztea, 2019ko ekitaldian egindako hileko batez bestekoarekin alderatuta. Pertsona fisikoak edo juridikoak alta egoeran daraman denbora ez denean dirusarreraren murrizketa egiaztatzeko eskatzen den 2019ko urtarrilaren 1era heltzen, jarduera-aldia kontuan hartuta egingo da balorazioa.
- Alta egoeran egotea dagokion Gizarte Segurantzako erregimenean edo mutualitate profesionalean, bai eta Ogasunean ere, eskabidea aurkezteko unean, bai eta Alarma-Egoeraren adierazpena egin aurretik ere (martxoak 14), Valle de Trápaga-Trapagaranen establezimendua duen eta dirulaguntzaren eskaeraren xedea den jarduera ekonomikoa garatzeko.
- Ekonomia Jardueraren Zerga-EJZn eta dagokion Gizarte Segurantzako araubidean alta egoeran egoteko konpromisoa, bai eta jarduera ekonomikoari dagokionez Valle de Trápaga-Trapagaranen gutxienez establezimendu bat irekita izateko konpromisoa ere, 5 hilabetez, honako egun hauetatik zenbatuta:
 - Ixtera behartuta dauden pertsonentzat, berriro irekitzen dutenetik, edo bestela, alarma egoera amaitzen denetik.
 - Ixtera behartuta ez dauden pertsonentzat, bere eskabidea erregistroan sartzen den egunetik. Ongi bete gabe egoteagatik agiriak eskatzen bazaizkio, eskabidea osorik aurkezteko duenean.
- Valle de Trápaga-Trapagarango udalak aurretik emandako dirulaguntza guztiak justifikatu izana, betiere dagokion justifikazio-epea amaitu bada.
- Dirulaguntzen arloko itzulketa betebeharrak egunean izatea.
- Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penal edo administratiborik ez izatea, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, eta horien barruan sartzen dira emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuagatiko diskriminazioan erortzeagatik gertatutakoak.
- Ez egotea dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikularen 2. zenbakian dirulaguntzen onuradun izateko aurreikusitako gainerako egoeretan.
- Eskatzaileak ez duela kontzeptu eta helburu bererako inolako dirulaguntza, laguntza edo dirusarrerarik jasotzen edozein administratiboritik edo erakunde publiko edo pribatutatik. Edo (*) laguntza eskatu duela, eta ebatzi gabe dagoela.
(*) Adierazi administrazio edo erakunde publiko edo pribatuaren izena eta eskatutako eta/edo emandako



dirulaguntzaren izena.

- Era berean, konpromisoa hartzen du erakunde honi idatziz jakinarazteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuen aurrean kontzeptu bererako egin ditzakeen dirulaguntza eskaerak.
- Azken hiru ekitaldi fiskaletan edozein proiektuengatik eman zaizkion minimis laguntzak aitortzea, zenbatekoa, erakundea, emakida-data eta laguntzen araubidea adierazita edo, hala badagokio, laguntzarik jaso ez duela adieraztea; halaber, eskabide hau aurkeztu ondoren lortutakoak ahalik eta lasterren jakinarazteko konpromisoa hartzea.

2.3. Aurkeztu beharreko agiriak

- Pertsona fisikoek edo nortasun juridikorik gabeko ondasun-erkidego edo sozietate zibiletako kideek agiri hauek aurkeztuko dituzte:
 1. NAN-Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
 2. EJZ- Ekonomia-Jardueren gaineko Zergaren alta eta baje ziurtagiria, eskaeraren datara eguneratua.
 3. Langile kontratatuak izanez gero, Altako Langileen txostena (eskaera egiten den egunetik hurbileneko datakoa; laguntzen deia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitartzen den eguna baino beranduagokoa izan beharko da).
 4. Autonomoaren lan-bizitza, 2020ko martxoaren 13tik ahalik eta hurbileneko datara doan aldia jasoko duena (eskaera egiten den egunetik hurbileneko datakoa; laguntzen deia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitartzen den eguna baino beranduagokoa izan beharko da).
 5. Ogasuneko ziurtagiri eguneratua, egiaztatuko duena diru-laguntzaren eskatzaileak egunean dituela bere zerga betebeharrak.
 6. Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren zirutagiri eguneratua, eskatzaileak bere betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duena.
- Pertsona juridikoen kasuan:
 1. IFZ txartelaren kopia, edo bestela, pertsona juridikoaren IFZ-ren Foru Ogasunak emandako ziurtagiria.
 2. EJZ- Ekonomia-Jardueren gaineko Zergaren alta eta baje ziurtagiria, eskaeraren datara eguneratua.
 3. Eskatzailearen ordezkapen-ahalak.
 4. Langile kontratatuak izanez gero, Altako Langileen txostena (eskaera egiten den egunetik hurbileneko datakoa; laguntzen deia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitartzen den eguna baino beranduagokoa izan beharko da).
 5. Enpresan dedikazio eskusiboa duten bazkide autonomoen lan-bizitza, 2020ko martxoaren 13tik ahalik eta hurbileneko datara doan aldia jasoko duena (eskaera egiten den egunetik hurbileneko datakoa; laguntzen deia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitartzen den eguna baino beranduagokoa izan beharko da).
 6. Ogasuneko ziurtagiri eguneratua, egiaztatuko duena diru-laguntzaren eskatzaileak egunean dituela bere zerga betebeharrak.
 7. Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri eguneratua, eskatzaileak bere



betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duena.

3. *Laguntzen argitalpena eta aurkezteko epea*

Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Laguntzak eskatzeko epea 10 egun naturalekoa izango da eta deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunean hasiko da.

Oinarri hauek eta inprimakiak eskuragarri egongo dira webgune honetan:
<http://www.trapagaran.net>

4. *Eskabideko akatsak zuzentzea*

Laguntza-eskabideak ez baditu betetzen oinarri hauetan eskatutako baldintzak, eta harekin batea ez balitz aurkeztuko exijituriko agiriak, Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, interesdunei eskatuko zaie, 5 egun balioduneko epean, akatsak zuzentzeko eta aginduzko agiriak eransteko, eta ohartaraztea, hala egin ezean, bere eskaera atzera egintzat joko dela, lege testu beraren 21.1 artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

6. artikulua—Diru-laguntzak egilesteko prozedura

1. Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 eta 23.etik 27.era bitarteko artikuluetan ezarritakoaren arabera emango da deialdi honetan araututako dirulaguntza.
2. Dirulaguntza norgehiagoka-araubidean emango da.

Onartutako eskabideen kopuruak honako oinarri hauetako bigarren artikuluan jasotako gehieneko aurrekontu-kreditua gainditzen badu, laguntza guztiak proportzionalki murriztuko dira.

7. artikulua —Prozeduraren instrukzioa eta ebazpena

1. Oinarri arautzaile hauetan jasotako laguntzak emateko instrukzio-organoa Valle de Trápaga-Trápagarango udaleko Tokiko Merkataritza eta Ekintzaileen Saila izango da, eta sail horri dagokio aurkeztutako eskabideak aztertzea eta ebaluatzea, eta egoki ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen dituen agiri eta/edo informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

2. Alkateak edo hark esku emandako organoak izango du ebazteko eskumena, aurreko paragrafoan aipatu den instrukzio-organoak proposatuta.

3. Ebazteko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita. Epe hori igarota, dirulaguntzaren eskaera ezetsizat joko da berariazko ebazpenik ematen ez bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.



Ebazpenak, gutxienez, honako hauek jasoko ditu: pertsona eta enpresa onuradunen zerrenda (NANak edo IFKak), zenbatekoak eta, baldin eta ezezpenik badago, horien arrazoi egoki eta nahikoak.

Emango den ebazpen horrek amaiera ematen dio administrazio-bideari eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzien epaitegian, jakinarazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatuko den bi hilabeteko epean. Hala ere, nahi izanez gero, eta aurreko paragrafoan aipatu den administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da ebazpena eman duen organo berean, hilabeteko epean.

Ebazpena www.trapagaran.net udal-webegunean argitaratuko da.

8. artikulua—Laguntzaren ordainketa

Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, emandako zenbateko osoan. Ordainketa banku-transferentzia bidez egingo da, dirulaguntza emateko ebazpena ematen den egunetik aurrera, eta ez da beharrezkoa izango bermerik eratzea.

9. artikulua— Bateragarritasuna beste laguntza batzuekin

Oinarri hauetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuetatik datozen beste laguntza batzuekin, dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean ezarritako mugekin.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Batzordearen abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Araudian ezarritako minimis araubidearen mendeko diru-laguntzak direnez (EBAO, L352, 2013/12/24), ezin izango zaizkie eman sektore hauetako enpresei:

- a) Arrantza eta akuikultura, arrantzako eta akuikulturako produktuen sektoreko merkatuen antolaketa komuna ezartzen duen 1379/2013 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.
- b) Itunaren I. eranskineko zerrendan agertzen diren nekazaritza produktuen ekoizpen nagusia.
- c) Nekazaritza produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko sektorean diharduten enpresak, honako kasu hauetan:
 - c.1) Laguntzaren zenbatekoa lehen mailako ekoizleei erositako edo enpresa interesdunek merkaturatutako mota horretako produktuen prezioaren edo kopuruaren arabera zehazten denean.
 - c.2) Laguntzaren zati bat edo osoa lehen mailako ekoizleengan izango duen eraginaren mende dagoenean.
- d) Hirugarren herrialdeetara edo estatu kideetara esportatzearekin lotutako jarduerak, baldin eta laguntza banaketa-sare bat ezartzeari eta ustiatzeari edo esportazio-jarduerari lotutako beste gastu arrunt batzuei lotuta badago.
- e) Inportatuen ordeztu produktu nazionalak erabiltzearen baldintzapeko laguntzak.



Laguntzek ezingo dute inola ere gainditu minimis laguntzaren gehieneko zenbateko osoa, gaur egun 200.000 eurokoa enpresa berarentzat hiru ekitaldi fiskaletan, ez banaka, ez enpresa berari emandako beste minimis laguntza batzuekin metatzearen ondorioz, Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamenduak ezartzen duenaren arabera, ez eta Estatuko laguntzen Erkidegoko araei lotutako beste laguntza mota batzuekin metatzearen ondorioz ere.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, jarduera ekonomiko bat gauzatzen duen edozein erakunde hartuko da «enpresatzat», haren izaera juridikoa eta finantzatzeko modua edozein izanik ere.

COVID-2019 Krisiaren Aurkako Diru-laguntzen Programaren diru-laguntza baten onuraduna izanez gero, eta, ondoren, harekin bateraezina den beste diru-laguntza baten onuraduna izanez gero, uko egin ahal izango zaio programa honen esparruan emandako diru-laguntzari, jasotako zenbatekoa itzulita eta sortutako berandutze-interesak ordainduta, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eta aplikatzekoa den gainerako araudian ezarritakoaren arabera.

10. artikulua— *Pertsona edo enpresa onuradunen betebeharrak*

Pertsona edo enpresa onuradunen betebeharrak honako hauek dira:

a) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan eta dagokion Gizarte Segurantzako araubidean alta egoeran egotea, eta jarduera ekonomikoa Valle de Trápaga-Trapagaranen gutxienez establezimendu bat irekita burutzea, gutxienez 5 hilabetez, honako egun hauetatik aurrera zenbatuta:

1. Ixtera behartuta dauden pertsonentzat, berriro irekitzen dutenetik, edo bestela, alarma egoera amaitzen denetik.

2. Ixtera behartuta ez dauden pertsonentzat, bere eskabidea erregistroan sartzen den egunetik. Ongi bete gabe egoteagatik agiriak eskatzen bazaizkio, eskabidea osorik aurkezten duenean.

b) Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Tokiko Merkataritza eta Ekintzaileen Sailak egin beharreko egiaztapen- eta ikuskapen-jarduketei men egitea, eta eskatzen zaion informazio guztia ematea.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jaso izana jakinaraztea, gertakariaren berri izan bezain laster.

d) Ebazpenean eta oinarri hauetan jasotako betekizunak eta baldintzak betetzen direla justifikatzea.

e) Jasotako funtsak itzultzea, dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotako kasuetan eta, bereziki, dirulaguntza lortzeko eskatutako baldintzak faltsutuz edo hori eragotzi dutenak ezkutatzuz lortzeagatik, edo dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan aurreikusitako finantza-egiaztapeneko eta -kontrolako jarduketei aurre egitea, aitzakiak jartzea, eragozpenak jartzea edo uko egitea agertzeagatik.

f) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan zehazten diren gainerako betebeharrak betetzea.



g) Pertsona edo enpresa onuraduna gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 3.b) artikuluko kasuetan badago, aplikatu beharreko publizitate aktiboaren betebeharretara egokitu beharko da.

11. artikulua— Laguntzen justifikazioa

Pertsona edo enpresa onuradunak 7 hilabeteko epea izango du, gehienez ere, honako hauek aurkezteko, egun honetatik aurrera zenbatuta:

- Ixtera behartuta egon diren pertsonentzat, berriro irekitzen dutenetik, edo bestela, alarma egoera amaitzen denetik.
- Ixtera behartuta egon ez diren pertsonentzat, bere eskabidea erregistroan sartzen den egunetik. Ongi bete gabe egoteagatik agiriak eskatzen bazaizkio, eskabidea osorik aurkezten duenean.

III. eranskinean (Amaierako justifikazioa) adierazitako agiria:

➤ *Nortasun juridikorik gabeko ondasun-erkidegoetako edo sozietate zibiletako pertsona fisikoen edo bazkideen kasuan, honako hauek entregatuko dira:*

- a) Nortasun juridikorik gabeko ondasun-erkidegoen eta sozietate zibilen kasuan, Nortasun juridikorik gabeko erakundea eratu dela egiaztatzen duen Foru Ogasunaren ziurtagiria.
- b) Ekonomia-Jardueren gaineko Zerga-EJZn izandako alten eta bajen ziurtagiria, justifikazio-datan eguneratua.
- c) Jarduera ekonomikoa lokal horretan garatzen dela eta 5 hilabetez egon dela irekita, berriz ireki ondoren edo alarma-egoera amaitu ondoren (ixtera behartuta egon diren jardueren kasuan) edo bere eskabidea erregistroan sartu denetik, edo hura osorik ez egoteagatik agiriak eskatuko balizkiote, eskabidea osorik aurkezten duenetik (ixtera behartuta egon ez diren jardueren kasuan):

Lokala alokairuan badago, 2 aukera daude:

1. Horniduraren baten fakturak eta ordainagiriak, autonomoaren izenean (edo ondasun-erkidegoaren izenean edo sozietate zibilararen izenean, hala badagokio), establezimendua irekita egon den 5 hilabeteko aldia estaltzen dutenak, 3. puntuko lehen paragrafoan adierazitako dataren erreferentziaren ondoren. Kontsumo maila establezimendu ireki batek duenarekin bat datorrela egiaztatuko da.
2. Alokairu-kontratuaren kopia eta ondorengo 5 hilabeteetako alokairuaren ordainagiria berriz ireki ondoren (ixtera behartuta egon diren jardueren kasuan) edo alarma-egoera amaitu ondoren (ixtera behartuta egon ez diren jardueren kasuan).

Valle de Trápaga-Trapagarango Udalak edozein unetan egiaztatu ahal izango du establezimendua irekita dagoela, aurrez aurreko bisita ere egin dezakeelarik.



Lokala jabetzan edo alokairuaz bestelako egoeretan badago:

Horniduraren baten fakturak eta ordainagiriak, autonomoaren izenean (edo ondasun-erkidegoaren izenean edo sozietate zibilaren izenean, hala badagokio), establezimendua irekita egon den 5 hilabeteko aldia estaltzen dutenak, 3. puntuko lehen paragrafoan adierazitako dataren erreferentziaren ondoren. Kontsumo maila establezimendu ireki batek duenarekin bat datorrela egiaztatuko da.

d) Enpresan dedikazio eksklusiboa duten autonomoaren lan-bizitza, 2020ko martxoaren 13tik justifikazio-datara bitarteko aldia jasotzen duena, Gizarte Segurantzaren alta egoeran jarraitzen duela egiaztatzen duena 5 hilabetetan, berriz ireki ondoren edo, dena den, alarma-egoera amaitu ondoren (ixtera behartuta egon diren jardueren kasuan) edo bere eskabidea erregistroan sartu denetik, edo hura osorik ez egoteagatik agiriak eskatuko balizkiote, eskabidea osorik aurkezten duenetik (ixtera behartuta egon ez diren jardueren kasuan).

e) Fakturazioa %75 murriztu dela egiaztatzen duen dokumentazioa (3. artikuluko c) atalean adierazitako ekintzak soilik). Aukerak:

1.- Fakturazioa %75 murrizteagatik jarduera uzteagatik prestazioaren emakidaren kopia.

2.- 2019ko ekitaldiko Balio erantsiaren zerga-BEZaren aitortpenaren kopia eta 2020ko bigarren hiruhilekoko BEZaren aitortpenaren kopia, 2020ko apirilean fakturazioa 2019ko hileko batez besteko fakturazioarekin alderatuta %75 murriztu dela frogatzen duena.

3.- 2020ko apirilean fakturazioa 2019ko hileko batez besteko fakturazioarekin alderatuta %75 murriztu dela frogatzen duen legezko balioa duen beste edozein agiri.

Onuraduna ez badago alta egoeran 2019ko urtarrilaren 1etik (diru-sarreraren murrizketa kalkulatzeko kontuan hartu beharreko aldia), jarduera-aldiaren batez besteko fakturazioa erreferentziatzen hartuta egingo da balorazioa.

f) Ogasunaren ziurtagiri eguneratua, dirulaguntza eskatu duenak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.

g) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri eguneratua, eskatzaileak bere betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.

➤ *Pertsona juridikoen kasuan:*

a) 2019ko Sozietateen gaineko Zerga: 200 erdua.

b) Enpresaren eratze-eskrituren fotokopia, osteko aldaketekin eta dagokion erregistroko inskripzioarekin.

c) Ekonomikomia-Jardueren gaineko Zergan (EJZn) izandako alden eta bajeen ziurtagiria, justifikazio-datan eguneratua.



- d) Egiaztagiri bat jasoko duena jarduera ekonomikoa lokal horretan garatzen dela eta 5 hilabetez iraun duela berriz ireki ondoren edo alarma-egoera amaitu ondoren (ixtera behartuta egon diren jardueren kasuan) edo bere eskabidea erregistroan sartu denetik, edo hura osorik ez egoteagatik agiriak eskatuko balizkiote, eskabidea osorik aurkezten duenetik (ixtera behartuta egon ez diren jardueren kasuan).

Lokala alokairuan badago, 2 aukera daude:

1. Horniduraren baten fakturak eta ordainagiriak, autonomoaren izenean (edo ondasun-erkidegoaren izenean edo sozietate zibilaren izenean, hala badagokio), establezimendua irekita egon den 5 hilabeteko aldia estaltzen dutenak, 4. puntuko lehen paragrafoan adierazitako dataren erreferentziaren ondoren. Kontsumo maila establezimendu ireki batek duenarekin bat datorrela egiaztatuko da.

2. Alokairu-kontratuaren kopia eta ondorengo 5 hilabeteetako alokairuaren ordainagiria berriz ireki ondoren edo alarma-egoera amaitu ondoren (ixtera behartuta egon diren jardueren kasuan) edo bere eskabidea erregistroan sartu denetik, edo hura osorik ez egoteagatik agiriak eskatuko balizkiote, eskabidea osorik aurkezten duenetik (ixtera behartuta egon ez diren jardueren kasuan).

Valle de Trápaga-Trapagarango Udalak edozein unetan egiaztatu ahal izango du establezimendua irekita dagoela, aurrez aurreko bisita ere egin dezakeelarik.

Lokala jabetzan edo alokairuaz bestelako egoeretan badago:

Horniduraren baten fakturak eta ordainagiriak, autonomoaren izenean (edo ondasun-erkidegoaren izenean edo sozietate zibilaren izenean, hala badagokio), establezimendua irekita egon den 5 hilabeteko aldia estaltzen dutenak, 4. puntuko lehen paragrafoan adierazitako dataren erreferentziaren ondoren. Kontsumo maila establezimendu ireki batek duenarekin bat datorrela egiaztatuko da.

- e) Enpresan dedikazio eskusiboa duten autonomoaren lan-bizitza, 2020ko martxoaren 13tik justifikazio-datara bitarteko aldia jasotzen duena, Gizarte Segurantzaren alta egoeran jarraitzen duela egiaztatzen duena 5 hilabeteetan, berriz ireki ondoren edo, dena den, alarma-egoera amaitu ondoren (ixtera behartuta egon diren jardueren kasuan) edo bere eskabidea erregistroan sartu denetik, edo hura osorik ez egoteagatik agiriak eskatuko balizkiote, eskabidea osorik aurkezten duenetik (ixtera behartuta egon ez diren jardueren kasuan).

- f) Fakturazioa %75 murriztu dela egiaztatzen duen dokumentazioa (3. artikuluko c) atalean adierazitako ekintzak soilik). Aukerak:

1.- Fakturazioa %75 murrizteagatik jarduera uzteagatik prestazioaren emakidaren kopia.

2.- 2019ko ekitaldiko Balio erantsiaren zerga-BEZaren aitortpenaren kopia eta 2020ko bigarren hiru hilekoko BEZaren aitortpenaren kopia, 2020ko apirilean fakturazioa 2019ko hileko batez besteko fakturazioarekin alderatuta %75 murriztu dela frogatzen duena.

3.- 2020ko apirilean fakturazioa 2019ko hileko batez besteko fakturazioarekin alderatuta %75 murriztu dela frogatzen duen legezko balioa duen beste edozein agiri.



Onuraduna ez badago alta egoeran 2019ko urtarrilaren 1etik (diru-sarrereren murrizketa kalkulatzeko kontuan hartu beharreko aldia), jarduera-aldiaren batez besteko fakturazioa erreferentziatzen hartuta egingo da balorazioa.

g) Ogasunaren ziurtagiri eguneratua, dirulaguntza eskatu duenak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.

h) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri eguneratua, eskatzaileak bere betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.

Dirulaguntzaren justifikazioak ez baditu betetzen oinarri hauetan eskatzen diren betekizunak, edo justifikazioarekin batera ez bada aurkezten eskatutako dokumentazioa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarri dena betez, interesdunei 10 egun balioduneko epea emango zaie akatsak zuzentzeko eta ongitzeko edo manuzkoak diren dokumentuak aurkezteko. Halaber, ohartarazi egingo zaie hala egiten ez badute bidezko zenbatekoak itzultzeko prozedura aplikatuko zaiela.

Dirulaguntza aurreikusitako epeetan justifikatzen ez bada, emandako dirulaguntza osorik itzuli beharko da; beraz, aurreko zenbakian ezarri eta arautu den justifikazio-epea amaitu eta justifikaziorik egin ez bada, bidezko prozedurari ekingo zaio, jasotako zenbatekoa itzuli beharra deklaratzeko, aldeztatik horri buruzko errekerimendua eginda.

12. artikulua—Dirulaguntzak itzultzea

Jasotako zenbatekoaren itzulketa, hala dagokionean, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren II. tituluan eta dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren III. tituluan xedatutakoaren arabera egingo da.

Dirulaguntza emateko ebazpenaren balio gabetasun-arrazoiak gertatzen badira (dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 36. artikuluan jasota daudenak), jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira eta, halaber, dirulaguntza ordaintzen denetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den arte sortuko diren berandutze-interesak eskatuko dira, dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan oro har aurreikusitako kasuetan.

Onuradunak ez badu betetzen 5 hilabetez jarduera ekonomikoari eusteko betebeharra, honako egun hauetatik zenbatuta:

- Ixtera behartuta dauden jarduerentzat, berriro irekitzen dutenetik, edo bestela, alarma egoera amaitzen denetik.
- Ixtera behartuta ez dauden jarduerentzat, bere eskabidea erregistroan sartzen den egunetik. Ongi bete gabe egoteagatik agiriak eskatzen bazaizkio, eskabidea osorik aurkezten duenean.

Itzuli egin beharko da bete ez den betekizunari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa.

Itzultzeko prozedura hasteari kalterik egin gabe, dirulaguntza emateagatik ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, pertsona edo enpresa onuradunak horren berri eman ahal izango dio organo kudeatzaileari, eta jasotako zenbatekoa borondatez itzuli ahal izango du. Era berean, berandutze-



interesak kalkulatu dira, harik eta itzulketa eraginkorra egiten duen arte.

13. artikulua—Zehapen araubidea

Arau-hausteen eta zehapenen araubidea dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluaren ezarritakoa izango da.

14. artikulua— Datu pertsonalen babesa

Valle de Trápaga-Trapagarango udalak, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (2016/679 EB) eta datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betez, jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak Valle de Trápaga-Trapagarango udalaren ardurapeko «Sustapen Ekonomikoa» tratamendu-jardueraren parte izango direla; eragiketa horren helburua Valle de Trápaga-Trapagarango udalaren eskumenekoak diren sustapen-politikekin lotutako dirulaguntzak kudeatzea eta kontrolatzea da. Bildutako datuak beharrezkoak dira Getxoko udalari emandako botere publikoak gauzatzeko eta legezko betebeharrak betetzeko, eta gai horretan eskumenak dituzten administrazio publikoei jakinarazi ahal izango zaizkie.

Datuen titularrek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta tratamendua mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, Valle de Trápaga-Trapagarango udalaren posta-helbidera edo dbo-dpd.trapagaran@bizkaia.org helbidera idatzizko jakinarazpena bidalita.

15. artikulua —Aplikatu beharreko araudia

Oinarri arautzaile hauetan xedatu ez den guztirako, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta bere garapen-erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zena, aplikatuko dira eta, osagarri gisa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta baita bere izaeraren ondorioz aplikagarri izan daitekeen beste edozein arau-xedapen ere.

463/2020 Errege Dekretuaren xedapen gehigarrietatik laugarrenaren 4. paragrafoa aplikatuz, epeen etetea ez zaio aplikatuko laguntza hauek emateko prozedurari, alarma-egoera justifikatzen duten gertaerekin hertsiki lotutako egoerei dagokien prozedura delako.

Valle de Trápaga-Trapagaranen, 2020ko maiatzaren 27an.—Alkatea.- Xabier Cuéllar Cuadra



I ERANSKINA
ESKABIDE EREDUA

Enpresa edo erakundeari buruzko informazioa

Izen-abizenak:	NAN:
Honako hau ordezkatzten du: Enpresaren sozietate-izena:	
Izen komertziala:	IFZ/IFK:

Enpresaren egoitza fiskala

Kalea eta zenbakia:	
Udalerria:	PK:
Telefonoa:	E-maila:

Jakinarazpenetarako helbide osoa (aurreko bera ez denean baino ez bete)

Izen-abizenak:	
Kalea eta zenbakia:	
Udalerria:	PK:
Telefonoa:	E-maila

Enpresaren jarduna

E.J.Z. nagusia:	Deskribapena:
Enpresaren altako data:	

Dirulaguntza ordaintzeko kontu korrentearen/ aurrezki kontuaren zenbakia

Kontuaren titularraren izen-abizenak:
Bankua edo kutxa:
Sukurtsala:

IBAN		Erakunde kod.	Sukurtsal kod.	K.D.	Kontu korrentearen/aurrezki kontuaren zenbakia
E	S				



COVID-19an zehar duen egoera (markatu dagokiona X batekin)

Dekretu bidez edo agintaritza eskudunak dekretatutako itxiera	
Fakturazioa gutxienez %75 murriztea (oinarrien 3. artikuluko c) idatz-zatian zehaztutako jarduerak)	

Establezimenduaren datuak, zeina jendearentzako zabalik egongo den 5 hilabetez Valle de Trápaga-Trapagaranen, berriz zabaltzen denetik edo alarma egoera amaitzen denetik (ixtera behartuta egon diren jardueren kasuan) edo bere eskabidea erregistroan sartu duenetik, edo hura osorik ez egoteagatik agiriak eskatuko balizkiote, eskabidea osorik aurkezten duenetik (ixtera behartuta egon ez diren jardueren kasuan):

Merkataritza-izena (izango balu):	
Kalea, zenbakia eta KP :	
Metro karratuak:	Erregimen honetan (Jabetza/alokairua/bestelakoak – adierazi zein):

Plantillaren datuak

(markatu X batez dagokiona)

Inoren konturako langileen kopurua:
Enpresaren juardueran dedikazio eskusiboa duten bazkide autonomoen kopurua:

—Nortasun juridikorik gabek ondasun-erkidegoen eta sozietate zibilen kasuan:

- Bazkideen zerrenda eta bakoitzaren partaidetzaren % :

.....
.....
.....
.....

- Eskabidea lehenago egin duten gainerako bazkideei esleitutako espediente-zenbakia.

.....
.....
.....
.....



ADIERAZTEN DU:

1. Laguntza horien deialdian ezarritako baldintzak eta betebeharrak ezagutzen eta onartzen dituela, eta enpresak edo erakundeak eskabide-inpimikian adierazitako datuak egiazkoak direla ziurtatzen duela.

2. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (EB 2016/679) eta datu pertsonalak babesteari eta eskuide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetzearen ondoretarako, onartu egin duela bere datu pertsonalak Valle de Trápaga-Trapagarango udalaren ardurapeko tratamendu-jardueraren parte izatea; eragiketa horren helburua Valle de Trápaga-Trapagarango udalaren eskumenekoak diren sustapen-politikekin lotutako dirulaguntzak kudeatzea eta kontrolatzea da. Bildutako datuak beharrezkoak dira. Valle de Trápaga-Trapagarango udalari emandako botere publikoak gauzatzeko eta legezko betebeharrak betetzeko, eta gai horretan eskumenak dituzten administrazio publikoei jakinarazi ahal izango zaizkie. Datuen titularrek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, eta tratamendua mugatzeko eskubieak baliatu ahal izango dituzte Valle de Trápaga-Trapagarango udalaren posta-helbidera edo dbodpd.trapagaran@bizkaia.org helbidera idatzizko jakinarazpena bidalita.

Hau guztia kontuan hartuta ,

VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARANGO UDALARI ESKATZEN DIO:

Bere eskabidea onartzeko eta goian adierazitako laguntzen deialdiaren arabera dagokion laguntza emateko. Behean sinatzen duenak bere gain hartzen du emandako datuen egiazkotasunaren erantzukizun osoa.

Eskatzailearen edo legezko ordezkariaren sinadura

Valle de Trápaga-Trapagaranen, 2020ko.....(a)ren(e)an.



II. ERANSKINA
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Izen-abizenak:	NAN:
Honako honen ordezkari gisa: Enpresaren izena:	
Izen komertziala:	IFZ/IFK:

AITORTZEN DUT:
(X jarri, hala dagokionean)

- Mikroenpresaren baldintzka betetzen ditudala:
1. Aktiboa edo eragiketa-bolumena 2 milioi eurotik gorakoa ez izatea.
 2. Plantillaren batez bestekoa 10 langilera ez iristea.
 3. Lehen adierazitako betekizunetako bat betetzen ez duen enpresa baten %25etik gorako partaidetzarik ez edukitzea, ez zuzenean, ez zeharka.

Bata ala bestea aukeratu:

- Garatzen dudan jarduera horri dagokionez fakturazioa 2020ko apirilean gutxienez %75 murriztu dela. 2019ko ekitaldian egindako hileko batez bestekoarekin aldaratuta. Pertsona fisikoak edo juridikoak alta egoeran daraman denbora ez denean 2019ko urtarrilaren 1era heltzen, jarduera-aldia kontuan hartuta egingo da balorazioa.
- Egiten dudan jarduera hori COVID-19ak eragindako egoeraren kudeaketari ekiteko alarma-egoera deklaritzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak edo agintaritza eskudunak emandako aginduek ezarritako txikizkako lokal eta establezimenduen publikoarentzako irekidera etete horregatik kaltetua izan dela.

Aukeratu dagokiona:

- Eskatzailea ez duela kontzeptu eta helburu bererako inolako subentzio, laguntza edo diru-sarrerarik jasotzen edozein administrazioetatik edo erakunde publiko edo pribatutik.
- Kontzeptu eta helburu bererako (*), laguntza eskatu diola, eta ebatzi gabe dagoela. .

(*): Adierazi administrazio edo erakunde publiko edo pribatuaren izena eta eskatutako eta/edo emandako dirulaguntzaren izena.

- Era berean, konpromisoa hartzen dut erakunde honi idatziz jakinarazteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuen aurrean kontzeptu bererako egin ditzakeen dirulaguntza eskaerak.
- Azken hiru ekitaldi fiskaletan edozein proiekturengatik eman zaizkion minimis laguntzak aitortzea, zenbatekoa, erakundea, emakida-data eta laguntzen araubidea adierazita edo, hala badagokio, laguntzarik jaso ez duela adieratea; halber, eskabide hau aurkeztu ondoren lortutakoak ahalik eta lasterren jakinarazteko konpromisoa hartzea.



Araudiaren izena	Ematen duen erakundea	Ebazpena	Ebazpen-data	Laguntzaren helburua	Laguntzaren zenbatekoa
GUZTIRA					

- Valle de Trápaga-Trapagaranen gutxienez establezimendu bat dudala irekita nire jarduera ekonomikoa garatzeko eta establezimendu hori ez dela etxebizitza baten parte.
- Dagokion Gizarte Segurantzaren erregimenean edo mutualitate proesionalean alta egoeran egon naizela, bai eta Ogasunean ere, alarma egoeraren adierazpena egin aurretik (martxoaren 14a) eta eskabidea aurkezteko unean, Valle de Trápaga-Trapagaranen establezimendua duen eta dirulaguntzaren eskaeraren xede den jarduera ekonomikoa garatzeko. .
- Konpromisoa hartzen dudala Ekonomia-Jardueren gaineko zergan-EJZ eta dagokion Gizarte Segurantzako araubidean alta egoeran egoteko, bai eta jarduea ekonomikoki dagokionez Valle de Trápaga-Trapagaranen establezimendu bat irekita izateko ere, 5 hilabetez, honako egun hauetatik zenbatuta:
 - Ixtera behartuta egon diren enpresentzat, berriro irekitzen dutenetik, edo bestela, alarma egoera amaitzen denetik.
 - Ixtera behartua egon ez diren enpresentzat, bere eskabidea erregistroan sartzan duten egunetik edo, ongi bete gabe egoteagatik agiriak eskatzen badizkiete, eskabidea osorik aurkezten dutenetik.
- Valle de Trápaga-Trapagarango Udalak aurretik emandako dirulaguntza guztiak justifikatu izana, betiere dagokion justifikazio-epea amaiaitu bada.
- Dirulaguntzen arloko ituzlketa-betebeharrak egunean izatea.
- Subentzioak edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik ez izatea, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, eta horien barruan sartzan dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2004 Legearen arabera sexuagatiko diskriminazioan erortzeagatik gertatutakoak.
- Ez egotea dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 2. zenbakian dirulaguntzen onuradun izateko aurreikusitako gainerako egoeretan.

Behean sinatzen duenak bere gain hartzen du emandako datuen egiazkotasunaren erantzukizun osoa.

Eskatzailearen edo legezko ordezkariaren sinadura

Valle de Trápaga-Trapagaran, 2020ko8^a)ren.....(e)an.



LAGUNTZA ESKATZEKO EGINTZAN AURKEZTU BEHARREKO NAHITAEZKO DOKUMENTAZIOA

1. Dirulaguntza eskatzeko eredu normalizatua. I. eranskina.
2. Erantzukizunpeko adierazpena. II. eranskina.

ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIO OSAGARRIA

Nortasun juridikorik gabeko ondasun-erkidegoetako edo sozietate zibiletako pertsona fisikoen eod bazkideen kasuan, honako hauek entregatuko dira:

1. NAN-Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia .
2. Ekonomia-jardueren gaineko zergan-EJZ izandako alten eta baje ziurtagiria, eskaeraren datan.
3. Langileak kontratatuta izanez gero, ITA-Altan dauden langileen txostena (eskaera egin den unetik ahalik eta gertuen egongo den datakoa; laguntzen deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu den dataren ostekoa izango da).
4. Autonomoaren lan-bizitza, 2020ko martxoaren 13tik ahalik eta datarik hurbilenekoaren artekoa (laguntzen deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu den dataren ostekoa izango da).
5. Ogasunaren ziurtagiri eguneratua, dirulaguntza eskatu duenak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena. .
6. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri eguneratua, eskatzaileak bere bete-beharrak egunean dituela egiaztatzen duena .

Pertsona juridikoen kasuan:

1. IFZ txartelaren kopia edo, hala badagokio, pertsona juridikoaren IFZ egiaztatzen duen Foru Ogasunaren ziurtagiria.
2. Ekonomia-jardueren gaineko zergan-EJZ izandako alten eta baje ziurtagiria, eskaeraren datan.
3. Eskatzailearen ordezkaritza-ahalak.
4. Langileak kontratatuta izanez gero, ITA-Altan dauden langileen txostena (eskaera egin den unetik ahalik eta gertuen egongo den datakoa; laguntzen deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu den dataren ostekoa izango da).
5. Autonomoaren lan-bizitza, 2020ko martxoaren 13tik ahalik eta datarik hurbilenekoaren artekoa (laguntzen deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu den dataren ostekoa izango da).
6. Ogasunaren ziurtagiri eguneratua, dirulaguntza eskatu duenak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena. .
7. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri eguneratua, eskatzaileak bere bete-beharrak egunean dituela egiaztatzen duena.



III. ERANSKINA
AZKEN JUSTIFIKAZIOA

Izen-abizenak :	NAN:
Honako honen eskuordetzan: Enpresaren izena:	
Merkataritza-izena:	IFZ/IFK:

JUSTIFIKATZEKO AURKEZTU DUN DOKUMENTAZIOA

Gehienez zazpi hilabeteko epean aurkeztu beharko da, egun honetatik aurrera zenbatuta:

- Ixtera behartuta egon diren enpresentzat, berriro irekitzen dutenetik, edo bestela, alarma egoera amaitzen denetik.
- Ixtera behartuta egon ez diren enpresentzat, bere eskabidea erregistroan sartzen duten egunetik edo, ongi bete gabe egoteagatik agiriak eskatzen badizkiete, eskabidea osorik aurkezten dutenetik.

Nortasun juridikorik gabeko ondasun-erkidegoen eta sozietate zibilen kauan: En caso de persona física o socios/as de comunidades de bienes o sociedades civiles sin personalidad jurídica se entregarán:

1. Nortasun juridikorik gabeko erakundea eratu dela egiaztatzen duen Foru Ogasunaren ziurtagiria,jurídica.
2. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga-JEZn izandako alden eta bajen ziurtagiria, justifikazio-datan eguneratua
3. Jarduera ekonomikoa lokal horretan garatzen dela eta 5 hilabetez egon dela irekita, berriz ireki ondoren edo alarma-egoera amaitu ondoren (ixtera behartuta egon diren jardueren kasuan) edo bere eskabidea erregistroan sartu denetik, edo hura osorik ez egoteagatik agiriak eskatuko balizkiote, eskabidea osorik aurkezten duenetik (ixtera behartuta egon ez diren jardueren kasuan):

a) Lokala alokairuan badago, 2 aukera daude:

- Horniduraren baten fakturak eta ordainagiriak, autonomoaren izenean (edo ondasun-erkidegoaren izenean edo sozietate zibilaren izenean, hala badagokio), establezimendua irekita egon den 5 hilabeteko aldia estaltzen dutenak, 3. puntuko lehen paragrafoan adierazitako dataren erreferentziaren ondoren. Kontsumo maila establezimendu ireki batek duenarekin bat datorrela egiaztatuko da.
- Alokairu-kontratuaren kopia eta ondorengo 5 hilabeteetako alokairuaren ordainagiria berriz ireki ondoren (ixtera behartuta egon diren jardueren kasuan) edo alarma-egoera amaitu ondoren (ixtera behartuta egon ez diren jardueren kasuan).

Valle de Trápaga-Trapagarango Udalak edozein unetan egiaztatu ahal izango du establezimendua irekita dagoela, aurrez aurreko bisita ere egin dezakeelarik.

b) Lokala jabetzan edo alokairuaz bestelako egoeretan badago:

Horniduraren baten fakturak eta ordainagiriak, autonomoaren izenean (edo ondasun-erkidegoaren izenean edo sozietate zibilaren izenean, hala badagokio), establezimendua irekita egon den 5 hilabeteko aldia estaltzen dutenak, 3. puntuko lehen paragrafoan adierazitako dataren erreferentziaren ondoren. Kontsumo maila establezimendu ireki batek duenarekin bat datorrela egiaztatuko da.

4. Autonomoaren lan-bizitza, 2020ko martxoaren 13tik justifikazio-datara bitarteko aldia jasotzen duena, Gizarte Segurantzari alta egoeran jarraitzen duela egiaztatzen duena 5 hilabeteetan, berriz ireki ondoren edo, dena den, alarma-egoera amaitu ondoren (ixtera behartuta egon diren jardueren kasuan) edo bere eskabidea erregistroan sartu denetik, edo hura osorik ez egoteagatik agiriak eskatuko balizkiote, eskabidea osorik aurkezten duenetik (ixtera behartuta egon ez diren jardueren kasuan).



5. Fakturazioa %75 murriztu dela egiaztatzen duen dokumentazioa (3. artikuluko c) atalean adierazitako ekintzak soilik). Aukerak:

- Fakturazioa %75 murrizteagatik jarduera uzteagatik prestazioaren emakidaren kopia.
- 2019ko ekitaldiko Balio erantsiaren zerga-BEZaren aitortpenaren kopia eta 2020ko bigarren hiruhilekoko BEZaren aitortpenaren kopia, 2020ko apirilean fakturazioa 2019ko hileko batez besteko fakturazioarekin alderatuta %75 murriztu dela frogatzen duena.
- 2020ko apirilean fakturazioa 2019ko hileko batez besteko fakturazioarekin alderatuta %75 murriztu dela frogatzen duen legezko balioa duen beste edozein agiri.

Onuraduna ez badago alta egoeran 2019ko urtarrilaren 1etik (diru-sarreraren murrizketa kalkulatzeko kontuan hartu beharreko aldia), jarduera-aldiaren batez besteko fakturazioa erreferentziatut hartuta egingo da balorazioa.

6. Ogasunaren ziurtagiri eguneratua, dirulaguntza eskatu duenak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
7. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri eguneratua, eskatzaileak bere betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.

Pertsona juridikoen kasuan:

- 1..2019ko Sozietateen gaineko Zerga: 200 eredu.
2. Enpresaren eratze-eskrituren fotokopia, osteko aldaketekin eta dagokion erregistroko inskripzioarekin.
3. Ekonomikomia-Jardueren gaineko Zergan (EJZn) izandako alden eta baje ziurtagiria, justifikazio-datan eguneratua.
4. Egiaztagiria bat jasoko duena jarduera ekonomikoa lokal horretan garatzen dela eta 5 hilabetez iraun duela berriz ireki ondoren edo alarma-egoera amaitu ondoren (ixtera behartuta egon diren jardueren kasuan) edo bere eskabidea erregistroan sartu denetik, edo hura osorik ez egoteagatik agiriak eskatuko balizkiote, eskabidea osorik aurkezten duenetik (ixtera behartuta egon ez diren jardueren kasuan).

a) Lokala alokairuan badago, 2 aukera daude:

- Horniduraren baten fakturak eta ordainagiriak, autonomoaren izenean (edo ondasun-erkidegoaren izenean edo sozietate zibilaren izenean, hala badagokio), establezimendua irekita egon den 5 hilabeteko aldia estaltzen dutenak, 4. puntuko lehen paragrafoan adierazitako dataren erreferentziaren ondoren. Kontsumo maila establezimendu ireki batek duenarekin bat datorrela egiaztatuko da.
- Alokairu-kontratuaren kopia eta ondorengo 5 hilabeteetako alokairuaren ordainagiria berriz ireki ondoren (ixtera behartuta egon diren jardueren kasuan) edo alarma-egoera amaitu ondoren (ixtera behartuta egon ez diren jardueren kasuan).

Valle de Trápaga-Trapagarango Udalak edozein unetan egiaztatu ahal izango du establezimendua irekita dagoela, aurrez aurreko bisita ere egin dezakeelarik.

b) Lokala jabetzan edo alokairuaz bestelako egoeretan badago:

Horniduraren baten fakturak eta ordainagiriak, autonomoaren izenean (edo ondasun-erkidegoaren izenean edo sozietate zibilaren izenean, hala badagokio), establezimendua irekita egon den 5 hilabeteko aldia estaltzen dutenak, 4. puntuko lehen paragrafoan adierazitako dataren erreferentziaren ondoren. Kontsumo maila establezimendu ireki batek duenarekin bat datorrela egiaztatuko da.

5. Enpresari dedikazio eskusiboa eskaintzen dioten bazkide Autonomoaren lan-bizitza, 2020ko martxoaren 13tik justifikazio-datara bitarteko aldia jasotzen duena, Gizarte Segurantzaren alta egoeran jarraitzen duela egiaztatzen duena 5 hilabetetan, berriz ireki ondoren edo, dena den, alarma-egoera amaitu ondoren (ixtera behartuta egon diren jardueren kasuan) edo bere eskabidea erregistroan sartu denetik, edo hura osorik ez egoteagatik agiriak eskatuko balizkiote, eskabidea osorik aurkezten duenetik (ixtera behartuta egon ez diren jardueren kasuan).

6. Fakturazioa %75 murriztu dela egiaztatzen duen dokumentazioa (3. artikuluko c) atalean adierazitako ekintzak soilik). Aukerak:

- Fakturazioa %75 murrizteagatik jarduera uzteagatik prestazioaren emakidaren kopia.
- 2019ko ekitaldiko Balio erantsiaren zerga-BEZaren aitortpenaren kopia eta 2020ko bigarren hiruhilekoko BEZaren aitortpenaren kopia, 2020ko apirilean fakturazioa 2019ko hileko batez besteko fakturazioarekin alderatuta %75 murriztu dela frogatzen duena.
- 2020ko apirilean fakturazioa 2019ko hileko batez besteko fakturazioarekin alderatuta %75 murriztu dela frogatzen duen legezko balioa duen beste edozein agiri.



Enpresa onuraduna ez badago alta egoeran 2019ko urtarrilaren 1etik (diru-sarreraren murrizketa kalkulatzeko kontuan hartu beharreko aldia), jarduera-aldiaren batez besteko fakturazioa erreferentziazat hartuta egingo da balorazioa.

7. Ogasunaren ziurtagiri eguneratua, dirulaguntza eskatu duenak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.

8. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri eguneratua, eskatzaileak bere betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.



AYUNTAMIENTO
VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARAN
UDALA



Enplegu eta herriaren garapenerako agentzia
Agencia de empleo y desarrollo local

